

ESTATUTUAK



batzarre



1.- Zer da Batzarre?

Batzarre 1987an sortu bazen ere, askoz lehenagokoa da Batzarre osatzen dugun kolektibo, gizon eta emakumeon ibilbide politikoa. Francoren aurkako borrokan ditugu askok erroak, eta baita ondoko trantsizio prozesuan ere.

Alor askotan ezkerreko mugimendu sozialekin batean eratu ditu Batzarrek bere baloreak eta identitatea. Mugimendu hauek ezkerreko hainbat arloren berpiztea ekarri zuten, hala nola, mugimendu sindikalena, mugimendu sozial feministena, ekologistena, antimilitaristena, asoziazio mugimenduen, eta auzoetako eta hirietako mugimenduen. Batzarreko jendeak herrietako bizitza politikoan hartu du parte, taldea sortu aurretik ere, hautagaitza bateratu zein berezkoen bidez.

Urte horietan zehar, ekarpen berriak izan dira hainbat sentsibilitateren inguruan; esate baterako, mugimendu antimilitarista eta intsumituan, nazioarteko kooperazioan eta elkartasunean, askatasun pertsonalen aldeko borrokan, drogen legalizazioan, etxegabetzeen kontrako mobilizazioan, memoria historikoan, bakezaletasunean, euskararen aldeko lanean, animalien kontrako tratu txarren aurka, eta beste zenbaitetan, betiere jendartearen sektore baztertuenen alde.

Batzarre alor politikoan zein sozialean garatzen den kolektiboa da, eta arlo instituzionalean nahiz horretatik kanpo ere aritzen da lanean. Hori abiapuntu hartuta, kritiko azaltzen da politika egiteko molde nagusien aurrean.

Nafarroako zeregin politikoetarako bide propioak bilatzen ditu Batzarrek. Irtenbideak bilatzeko eta arazoak konpontzeko garaian, identitate guztiak hartzen ditu kontuan, Nafarroako errealitatean, aniztasunean eta berezitasunetan tinkoturik.

Errepublikaren baloreen aldekoa da Batzarre, balore laikoen aldekoa, eta ezker berritua eraikitzeko ari gara lanean. Dogma zaharretatik urrun, jendarte ireki eta anitzaren aldekoa da, parte-hartzean, justizian, askatasunean, berdintasunean, elkartasunean eta giza eskubide guztien aldeko defentsa erabatekoan oinarritua, izan norbanakoarenak nahiz kolektiboak, eta edozein zapalkuntza motaren aurkakoa.

2.- Eremua eta egoitza

- Honakoa da Batzarreko egoitza soziala: Nabarrerian kalea 15, 1. C, Iruñea, P.K.:31001, eta jarduerak burutzeko lurralde-eremua Nafarroa da. Zuzendaritza taldeak egoitza sozialaren aldaketa ados dezake.

3.- Afiliatuak eta jarraitzaileak

Batzarreko afiliatuak honako baldintzak bete behar dituzte:

- Kolektiboaren politikaren eta inizatibaren alde daude.
- Barne bizitzan parte hartzen dute.
- Kolektiboa diruz laguntzen dute, beren ahalmenaren arabera.

- Batzarreko zuzendaritza-organoek hartutako akordioak betetzen dituzte.
- Afiliatuak ezin dira beste alderdi edo organizazio politikoetako partaide izan, Batzarrek onartutako koalizio eta plataforma politikoetakoak izan ezik.

Afiliatuen eskubideak:

- Batzarreraren jardueretan eta gobernu-organoetan parte hartu, botoa eman eta Batzar Nagusira azaldu.
- Batzarreraren karguetarako hautesle eta hautagai izatea.
- Informazioa jaso zuzendaritza eta administrazio-organoen osatzearen inguruan, zuzendaritza-organoek hartutako erabakien inguruan, egindako jardueri buruz eta egoera ekonomikoaren gainean.
- Batzarreko organoen aurrean kolektiboaren ildoaren kontrakotzat jotzen dituen aurkaratzeak eta desadostasunak aurkeztu.
- Batzarreraren Berme-batzordera joan. Haren aurkako diziplinazko neurriak hartu aurretik, azaltzeko aukera izan eta, era berean, neurri horietara eraman duten gertakarien berri izan.

Afiliatuek honako konpromisoak dituzte:

- Egungo Estatutuak, Kode Etikoa eta Zuzendaritza taldearen eta batzorde desberdinek adostutako akordioak betetzea.
- Antolatutako jardueretan, ahal den neurrian, parte hartzea.
- Adostutako kuotak ordaintzea.
- Antolatutako ekimen eta asanbladetara joatea, ahal den neurrian.
- Betetako karguak atxikita dauzkan betebeharrei aurre egitea.

Batzarreraren jarraitzaile dira Batzarreraren ideiekin bat egin eta zenbait jardueretan parte hartzen dutenak.

4.- Tokiko Antolakuntza

- Herri-batzarra kide eta jarraitzaileek osatuko dute, eta hauek izanen dira antolakuntzaren oinarria. Bileren maiztasuna eta gaiak kasu bakoitzean ezarriko dira. Zuzendaritza Taldearekin harremana mantentzeko pertsonak aukeratuko dira.
- Batzarrak herriko hautagai-zerrendak eratzeko eskumena izanen du, Estatutuetako 10. puntuan ezarritako irizpideen arabera.
- Batzarrak egoki ikusten dituen hauteskunde aliantzak erabakitzeke eskumena izanen du, kontuan hartuta organizazioaren osotasunerako kasu bakoitzean ezartzen diren irizpide orokorrak.

5.- Zuzendaritza (lehen iraunkorra)

- Ohiko Batzar Orokorrak aukeratuko du, eta afiliatu guztiak aurkeztu ahal izanen dira.
- Kontseilu Politikoen arteko zuzendaritza organo nagusia da.
- 10 lagunek edo gehiagok osatuko dute, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu. Jende gehiago batu ahal izanen da ondoren, zuzendaritzak onartzen badu.
- Deialdia eta gai ordena Zuzendaritzako arduradunak igorriko ditu. Bileretan akta jasoko da.
- Kideek kargua utziko dute, banaka nahiz taldean, eurek beraiek erabakita, edo Batzarreko kideen %60k hala eskatuta.

Zuzendaritza taldearen ahalmen dira honakoak:

- Egoki deritzoten bozeramailetzak zehaztea.
- Jarduera sozialak zuzendu eta Batzarreraren kudeaketa ekonomiko eta administratiboaz arduratzea, dagozkien kontratu eta ekitaldiak egitea adostuta.
- Lantaldeen jarduera koordinatzea, jardueri laguntza eskaini eta haien arteko elkarlana eta informazio trukaketa ahalbidetzea.
- Batzar orokorraren akordioak gauzatzea.
- Urteko Kontuak egin eta Batzar Orokorraren onespina bilatzea.
- Errolda kudeatu eta bere baitako moldaketa eta altak erabakitzea.
- Kideen arteko galdeketa plebiszitarioak deitzea, Batzarrerentzat garrantzitsu diren gaien inguruan.
- Ohiko eta ezohiko kuotak ezarri.
- Bateriaezintasun eta ordainsari erregimena ezarri.
- Batzar Nagusiaren erabateko eskumena ez den beste edozein ahalmen.

6.- Kontseilu Politikoa (lehen handitua)

- Ohiko Batzar Orokorrak aukeratuko du eta afiliatuak aurkeztu ahal izanen dira.
- Kontseilu Politikoa 30 lagun izanen ditu, gehi Zuzendaritzakoak. Jende gehiago sartu ahal izanen da gero, Kontseiluaren onarpena lortuz gero.
- Batzar Orokorren arteko zuzendaritza organo nagusia da.
- Zuzendaritzak deituko du, honek baitu jorratu beharreko gaiak aukeratzeko ardura.
- Bere egitekoen artean, honakoak daude: sortzen diren eztabaidak antolatzea, Batzar Orokorra antolatzea, egoera politikoak eskatzen dituen erabakiak hartzea, garrantzizko dokumentuak onartzea, urteko aurrekontuak onartzea, estatutuetan behin-behineko aldaketak egitea.
- Gutxienez urtean bitan eta Zuzendaritzaren edo kideen heren batek egoki ikusten duen hainbat aldiz deituko da.
- Kideek kargua utziko dute, banaka nahiz taldean, eurek beraiek erabakita, edo Batzarreko kideen %60k hala eskatuta.

7.- Kontu Batzordea

- Politika-Kontseiluak lau urterako aukeratutako hiru kidek osatuko dute.
- Batzarreraren operazio ekonomikoen kontrola eta ikuskapena izanen dira bere eginkizun nagusia, eta Batzar Nagusiari soilik emango dio kontu.

8.-Berme Batzordea

- Politika-Kontseiluak lau urterako aukeratutako hiru kidek osatuko dute.
- Batzarreraren antolakuntzako beste edozein kargurekin bateraezina izanen da batzorde honetako kide izatea.
- Kide guztien eskubideen defentsan jardungo du, batzordearen txostena ezinbestekoa izanen da etete edo kanporatze espedientea irekitzekotan.
- Batzordearen aginduak lotesleak dira Erakunde osorako.

9.- Ohiko Batzar Orokorra

Lau urtetik behin egingen da, gutxienik, afiliatu guztien Ohiko Batzar Orokorra eta epea murriztu daiteke Politika-Kontseiluaren gehiengoaren proposamenez. Gureafiliatuen eta jarraitzaileez gain Zuzendaritza taldeak edo Politika-Kontseiluak interesgarritzat jo dezaketen jendea ere bertaratu ahal izanen da.

Honakoen inguruan jardungo da:

- Kontseilu Politikoak aurreko 4 urteetan egindakoaren inguruan prestatuturiko hausnarketaren aurkezpena, eta etorkizunerako planteatzen diren ideiak arlo sozialean, politikoa, baloreenean..
- Batzarra baino bi hilabete lehenago gai zehatzak aurkeztu ahal izanen dira, afiliazioaren %20k abalaturaz gero.
- Eztabaida irekia eta aurkeztutakoaren inguruko botazio erabakigarria.
- Estatutuetako aldaketa proposamenen onarpena, halakorik izanen balitz.
- Kode etikoko aldaketa proposamenen onarpena, halakorik izanen balitz.
- Zuzendaritzaren hautaketa.
- Kontseilu Politikoaren hautaketa.
- Botazioak isilpekoak izanen dira eta Batzarrean bertan dauden afiliatuek bakarrik hartuko dute parte. Hautagaiak berretsiko dira bozken %20a, gutxienez, lortuz gero.

10.- Ezohiko Batzar Orokorra

- Batzarreko Ezohiko Batzar Orokorra deituko da afiliazioaren %20k hala eskatzen duenean, ekin beharreko gaia edo gaiak adierazita.
- Eskara egin eta handik hilabetera gehienez egingen da deialdia.

11.- Kargu publiko izateko primarioak

Barneko primarioen sistema erabiliko da hauteskunde zerrendetan agertuko diren Batzarreko kideak aukeratzeko (udal, Nafarroako parlamentuko, Espainiako parlamentuko eta Europako hauteskundeetan).

- Prozedura kasu bakoitzean zehaztuko da, eta erabakia Politika-Kontseiluan hartuko da.

12.- Kontsulta loteslea

- Kontseilu Politikoak garrantzitsu jotzen dituen erabakiak hartzeko, koalizio bateko parte izatea edo izateari uztea.. esaterako, bozketa aurreko astean erroldan zeuden afiliatu eta jarraitzaile guztiei galdetuko zaie eta gehiengoz erabakiko da. Proposamena edozein kidek egin diezaioke Politika-Kontseiluari, eta Kontseiluak erabakiko du gehiengoz aurrera eraman edo ez.

13.- Estatutuetako aldaketak

- Estatutuetan behin-behineko aldaketak egin ahal izanen dira, Kontseilu Politikoko edozein kidek proposatuta, Kontseiluko kideen %50en onospena lortzen badute.
- Aldaketei behin betiko onarpena Ohiko Batzar Orokorrean emango zaie.

14.- Desegitea

- Elkartea borondatez desegingo da Ezohiko Batzar Orokorrak, bertaratutakoen bi herenen gehien-
goz, hala adostuta.
- Desegitekotan, batzorde likidatzaile bat izendatuko da, eta honek, behin zorrak kenduta, eta liki-
dezia edo ondarerik izatekotan, elkartearen irabazi asmorik gabeko izaeraren kontra egiten ez duten
xedeetara bideratuko du.